

## 10. Eranskinak

### 10.1. 1. eranskina: Ikastetxearen baimena



## Gradu Amaierako Lana

Ikastetxeko kide agurgarriak:

Eider Gallastegui Aguirrebeitia naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko laugarren mailako ikaslea. Azken urte honetan, Gradu Amaierako Lana (GrAL) egiten ari naiz. Horrekin batera, nire ikergai nagusia ikasleek bertsolaritzari buruz duten interesa izanik, hezkuntzan bertsuak duen erabilgarritasuna nolakoa den aztertzea dut helburutzat.

Beraz, hori kontuan izanda, ikastetxeko bosgarren eta seigarren mailako ikasleek beraien ikaskuntza bideratzeko material ezberdinak proposatu beharko lituzkete, betiere bertsolaritzarekin hariak lotuz, era horretan, ikasleen interesak eta jakintzak gora egingo luketelakoan bainago.

Horretarako, zuen laguntza asko eskertuko nuke; izan ere, Lehen Hezkuntzako azken etapan, nik sortutako galdetegi bat pasatzea da nire helburua. Galdetegi hori ordenagailuen bitartez betetzekoa izango da eta zenbait galdera ezberdin agertuko dira bertan, batzuk kualitatiboki erantzutekoak eta beste batzuk kuantitatiboki.

- **Galdetegian:** Bertsolaritzari buruz duten interesari buruz galdetzeaz gain, “Gu ere bertsotan” proiektuari buruz duten iritzi, gustu etab izango lirarteke aztergaiak. Halaber, aurretik aipatu bezala, bukaeran beraien proposamen propioak plazaratu beharko lituzkete.

Jasotako datuak guztiz anonimoak izango dira eta eskolaren konfidentziasuna gordeko da denbora guztian. Hori gutxi balitz, datuak aipatutako lan-akademikorako erabiliko dira bakarrik.

Zalantzaren bat izatekoan, galde iezaezue edo bestela jarri kontaktuan posta elektronikoa honen bidez: [neideronandi@gmail.com](mailto:neideronandi@gmail.com)

Zuen lankidetzak eskertzen dizuet eta har ezazue nire agurrik zintzoena.

---

**Eider Gallastegui Aguirrebeitia**

EHUko ikaslea

(Sinadura)

**Ikastetxeko arduraduna**

(sinadura eta zigilua)

10.2. 2. eranskina: Irudi geometrikoak ikasteko bertso kartak

## IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK

Hiru aurpegi ditut  
Neurri bera **hartzen**  
Oinetan hirukiak  
Dizkidate **jartzen**  
Bederatzi ertz eta  
Sei erpin **marratzen**  
Ea zer prisma naizen  
Nork duen **asmatzen**

ERANTZUNA: Prisma hirukiarra

## IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK

Sei aurpegi berdinak  
A ze **arraroa**  
Naiz hamabi ertz eta  
Zortzi **erpinetara**  
Asmatu ezik ni neu  
Esatera **noa**  
Izan naiteke kutxa  
Edota **dadoa**

ERANTZUNA: Kuboa

## IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK

Bost paralelogramo  
Eta bi oin hartu  
Hoiiek pentagonoak  
Gisa itxuratu  
Hamabost ertz ta hamar  
Erpinak kokatu  
Hori dena jakinda  
Zer naizen asmatu

ERANTZUNA: Prisma pentagonalala

## IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK

Sei paralelogramo  
Ditut badakizu  
Ta oinetan hexagono  
Forma dut jakizu  
Hamazortzi ertz ditut  
Guztiak berdintsu  
Horrenbeste pistekin  
Asmatu zuk aizu

ERANTZUNA: Prisma hexagonalala

## IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK

Oin bakar bat daukat nik

Baina forma **pila**

Sortzeko hasi zaitez

Triangeluen **bila**

Erraza da asmatzen

Ta izan **abila**

Egipto aldeetan

Gaudelako **mila**

ERANTZUNA: Piramidea



# PALEOLITOA



**1** Historiaurreko  
Lehenengo aroan  
Nahiz eta bizi ziren  
Denak haitzuloan  
Ehizatu eta jana  
Aurkitzerakoan  
Nomadak ziren denak  
Paleolitoan

**2** Gizakia zen handi  
Eta indartsua  
Nahiz eta ez espero  
Aurkitu zen sua  
Basapiztiei sortzen  
Zien hark izua  
Beroa eta argia  
Zelako luxua



**3** Kobazuloetako  
Paretak marraztu  
Fruituak haziak ta  
Landareak batu  
Harri eta hezurdun  
Aiztoak prestatu  
Gero suaren bueltan  
Ohi ziren elkartu

**4** Lepokoak zituzten  
Hortz ta hezurrezko  
Larruazalak onduz  
Arropak sortzeko  
Jostorratzen barruan  
Tendoiak sartzeko  
Horiek erabiltzen  
Zituzten josteko




# NEOLITOA

**1** Hamar mila bat urte  
Pasatuta jada  
Igaroz izozteen  
Ta hotzen bolada  
Kobazulotik irten  
Ta txaboletara  
Garai historiko hau  
Neolitoa da



**3** Arrantzara irtetzen  
Ziren txalupetan  
Abeltzaintza ehungintza  
Sortu zirenetan  
Kobazuloak utzi  
Eta herrixketan  
Denak finkatu ziren  
Ibai izkinetan



**2** Hazi batek handitu  
Ohi du ta jakintza  
Neolitoan sortu  
Zen nekazaritza  
Hobetuz gizakien  
Osasun baldintza  
Ereinez luzatu zen  
Pertsonen bizitza



**4** Harriak leundu ta  
Lanabesak fintzen  
Kozinatzekeo ontziak  
Zituzten osatzen  
Ta idazkera hasi  
Zirenean sortzen  
Historiaurrearen  
Amaiera izan zen



# EGIPTO



1

Lehen zibilizazio  
Izandakoetan  
Murgilduz ezagutu  
Egipto benetan  
Hieroglifikoetan  
Ta piktogrametan  
Irakurriak horma  
Ta papiroetan

2

Nilo ibaiak zuen  
Izkin bakoitzean  
Lur emaritsuetan  
jana landatzean  
Gari eta garagar  
Ugari batzean  
Merkataritza sortu  
Zuten bat-batean



3

Gurdi gurpildunetan  
Zuten bidaiatzen  
Ondoren espezie  
Anitzez ordaintzen  
Hiri jauregi tenplu  
Ta etxeak sortzen  
Hasi ziren makina  
Sinpleak asmatzen

4

Faraoiak hil eta  
beraien gorpuak  
Sarkofagoan sartu  
Momifikatuak  
Non aurkitu daitezken  
Garaiko kontuak  
Piramide barruan  
hilobiratuak





# GREZIA



**1** Egeo itsasotik  
Jarrita begira  
Polisak ta tenpluak  
Dituen hirira  
Greziara iritsiz  
Atenas handira  
Olinpiar jokoak  
Han sortuak dira

**3** Irakaskuntzak hartu  
Zuen garrantzia  
Filosofia zenez  
Garaiko zientzia  
Askatasunerako  
Landatuz hazia  
Garai honetan sortu  
Zen demokrazia

**2** Gehienak bizi ziren  
Nekazaritzatik  
Lehengaiak aldatuz  
Bi txanponengatik  
Itsasoz garraiatuz  
Makina bat jaki  
Merkatua garatu  
Zuten horregatik







# ERROMA



**1** Erromatarren tropak  
Heldu zirenean  
Zazpiehun urte inguru  
Ta kristo aurrean  
Aurkikuntzak asmatzen  
Eta abarrean  
Gure oinarri dira  
Gaur egunean

**3** Beste aurkikuntza bat  
Zen errepidea  
Legioentzako zen  
Baliabidea  
Merkantziei erraztu  
Zitzaien bidea  
Mugi zitekeelako  
Hain erraz jendea

**2** Akueduktuak ura  
Kanalizatzekeo  
Sortu ziren teknika  
Perfekzionatzekeo  
Termak eta bainuak  
Bertan egiteko  
Hiri barruko ura  
Garbi izateko

